

Zentral eolikoak egiteko 33 eremu hautatu ditu EAeko lurralde plan sektorialak

Mendiak dira proposatutako leku gehienak, 139 inguru, eta kritikak egin dizkiote plangintzari, instalazioek ingurumenean izango duten eragina dela eta



Iñaki Petxarroman


Eusko Jaurlaritzak heldu den udarako onartu nahi du energia berriztagarrien lurralde plan sektoriala (LPS), baina prozesu administratibo luzea gainditzeko mugarrak dezente ditu aurretik: erakundeak zuzenketa egiten ari zaizkio LPSaren aurrerapen txostenari. Plangintza, beraz, aldatzen ari da, eta aldatuko da oraindik, azkenik onartu arte. Oraingoz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak online duen dokumentuan, 33 eremu zabal proposatzen dira zentral eolikoak egiteko. Horietan, 139 lerrokada bereizi ditu BERRIAK, baina ezin da zehaztu oraingoz ea lerrokada horietako bakoitza parke eoliko bat izango den –horren erreferentzia gisa hartu badaiteke ere–, edo gehiago izango diren.

Planoetako kokaleku gehienak mendiguneak dira, eta horien artean ez daude dagoeneko eraikita dauden edo tramititzen ari diren proiektu eolikoak –Kortazar, Sañoa, Samiño, Irimo...–. Jaurlaritzaren helburua da 2030erako potentzia eolikoa bost bider handitzea. Egun 153 megawatt daude instalatuta, eta 783 megawatt edukitzea da asmoa. 2030ean, bukaerako energiaren kontsumoaren %21 iturri berriztagarrietatik heltzea nahi du Jaurlaritzak; eta 2050erako, %40.

Hilabete luzez egon dira LPS aurrerapenaren agiririk Interneten ikusgai. Prozesu administratiboa, baina, luze eta korapilatua da, LPSak eta lurraldea antolatzeko beste plangintza batzuek talka egin dezaketelako, besteak beste, eta hala gertatu da kasu honetan. Izan ere, Jaurlaritzak berak bultzatzen duen Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala –Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bultzatua– ez dator bat LPSaren

EAeko ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Proiektu eolikoak



Lehen maila, xehetasunak	Luzera (km)	Hedadura (km ²)
1 Mandoegi	6,89	0,91
2 Arbalan	4,34	0,57
3 Azazeta	4,58	0,61
4 Labraza	9,62	1,29
5 Galarragi-Illuntzar	0,42	0,056
6 Jata-Burgoa-Sollube	8,2	1,1
7 Parda-Argalarío	1,45	0,19
8 Ganekogorta	6,04	0,81
9 Kolitza-Garbea	2,46	0,33

Bigarren maila

- 1 → Bielorríeta, Aitzadi, Leuneta, Garagarza.
- 2 → Loatzo, Belabieta-Ibingo langa, Ordizgain, Beibategi, San Lorentzo (Larre), Ipuñeño.
- 3 → Ulizar, Aldamuño, Gañeta-Illarra, Eroiñpe-Arburu.
- 4 → Eskeltzu.
- 5 → Txorondegi, Indo.
- 6 → Indamendi, Txatxarromendi.
- 7 → Urraki-Illau, Txoritagi, Eizeta.
- 8 → Aizkonako Haitzak, Izazpi, Oleta, Ibagotii, Arkina.
- 9 → Urkamendi-Elordiko Gaña, Anduitz-Txobillar, Toriskita, Otarre, Atxurigaín.
- 10 → Jaungoikomendi.
- 11 → Arnikurutz, Kalamua.
- 12 → Salobíeta, Larrazkondo.
- 13 → Elgeamendi, Arkamo, Urpaso, Galzagain, Isuskiza, Durako gain.
- 14 → Pikatxo-Ganalto, Olazar, Arrato.
- 15 → Indiagana, Basalau.
- 16 → Peña de los Hozanillos-Peña de la Hoz, San Sebastian, La Recuena, Risco de San Pedro, Los Caminillos, Valle de Hontanilla, Pozo de Campos, Alto de Larran, Risca, Peñalla.
- 17 → Atauri-La Rasa.
- 19 → Galarregi, Mendinagusí.
- 20 → Mototegi, Mekoletako gurulzea, Upela, Zubilarra, Aiaogana.
- 21 → Ganguren, Aretxabalagana-Kurte Ionlorra.
- 22 → Lopsrria mendia-Obargana.
- 23 → Unizarmendi, Urizuriagamendi, Lularri-Ermua, Leorari.
- 24 → Serantes, Luzuero.
- 25 → El Haya-Hiiso, Alen-Trespiqueillos, Betaio-Las Losas mendia, Peña Amanilla-Cerro Poza, Zartzaga-Llangones.
- 26 → Ezpelarri, La Rasa, Peña Helada-Alto de San Juan, Argalarío.
- 27 → El Cortado, Artegi, Mendiola, Eretza, Peñablanca, Aldape.
- 28 → Gazteluzar-Mugarriluze, Larrako, Arrastaleku, Gongeda-Zamaia, Gallarraga.
- 29 → Eskorta-Arrola.
- 30 → Zipar, Cinto-El Pico del Solar, Artegi-Pico de la Cabaña, Cabeza mendia.
- 31 → Los Tueros-Los Picones, Alto de la Celadilla-Biga, Guinea, El Pico del Mojon, Untzila.
- 32 → Muela.

proposamenarekin. Izan ere, beste plan horretan hobetsi dute inguruan zentral eoliko gehiago ez egitea, eta iritzi diote hornikuntza aseko litzatekeela energia fotovoltaikoa bultzatuz eta oraingo eolikoak indartzuz gero.

Eztabaida handia sortzen ari da Araban. Diputazioaren Ingumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak kritika egin dio LPSaren aurrerapen txostenari: «Mendilerro askotan aurreikusten diren lerroka-den okupazioak habitatak aldatzea eta zatikatzea ekarriko luke. Horrek eragina izango luke lurraldearen funtzionaltasunean eta konektibitate ekologikoan».

Natur babesguneak, salbu LPSan natur babesguneak salbuetsi dituzte instalazio berriztagarriak egiteak. Alabaina, proposatutako gune asko gertu daude babesguneetatik eta Natura 2000 Sareko eremuetatik. Horregatik, korridore ekologikoen sarea zaintzeko eta naturguneen arteko «irazkortasun ekologikoa» bermatzeko «giltzarriak» dira. «Arriskupeko hegazti batzuek jateko eta habitak jartzeko behar dituzten leku batzuetan daude lerrokada batzuk».

Arabian hiru parke eoliko daude gaur egun, eta lurralde plangintza horrek beste hamahiru kokaleku aurreikusten ditu. Horrez gain, Labraza eta Azazetan bi parke eoliko egiteko ingurumen baime-na eman du Arabako Diputazioak dagoeneko.

Arabako Errioxa energia eolikorako gune optimotzai jotzen du LPSak. Ezohikoa da hango kasua, 12.110 hektarea instalazio eolikoak ezartzeko egokitzat jo dituzte-lako plan berrian. Herrien barruti urbanoen inguruko «babes ere-

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA, OMS, BERRIA



Las Llanas izeneko parke eolikorako proiektua argitaratu du EAEko Aldizkari Ofizialak. Enkarterrin jarri nahi dute, Goredola eta Zalla artean (Bizkaia). Euskal Haizie enpresak aurkeztu du proiektua; Fistera Energy Galiziako energia konpainiaren adar bat da. Hiru egun eskasean, bi parke eoliko berriren proiektuak argitaratu dira aldizkarian. Asteartean zabaldu zen Aixearre Araban jarri nahi duena.

Elgea-Urkullako parke eolikoa. JUAN CARLOS RUIZ/FORU

muak» bakarrik utzi dituzte eolikoaren garapenerako esparrutik kanpo, eta, Arabako Foru Aldundiaren txostenean, eskatu dute kokalekuak zeintzuk diren zehazteko eskualde horretan. Eztabaida dezente eragin du Arabako Errioxako kasuak, eta, BERRIAK duen informazioaren arabera, li-tekeena da laster aldaketak egitea LPSaren zirraborraon.

Arabak garrantzi handia du bioaniztasunaren aldetik, Pirinioak eta Kantauriar mendikatea lotzeko funtsezkoa delako. Horregatik, aldundiaren txostenean ondorioztatu dute zorrotz aztertu behar dela instalazio industrial berriztagarriek zer eragin izango luketen mendiguneetako hainbat espezieen iraupenean, belatz handia, ugatza, miru gorria, sai zuria, arrano beltza eta Bonelli arranoa bizi baitira haietan, besteak beste.

Arabako Ingurumen Sailaren zuzenketan, gainera, oharatarazi dute lurraldea sakon eraldatu behar dela, lur mugimendu, zimentatze lan, betelan, lurpeko eta aireko sareen muntaketa handiak egin behar direlako instalazio horiek ezartzeko. Hortaz, uste dute berrikusi egin behar dela LPSaren irizpide bat, ez direlako salbuetsi behar naturgune babestuak soilik. «Antropizazio gabeko eremutzat hartu behar dira lotura ekologikoko intereseko eremu garrantzitsuenak eta arriskupeko hegazti faunarentzat garrantzitsuak diren eremu nagusiak ere».

Bi gune mota bereizi ditu LPSak: lehen mailakoak eta bigarren mailakoak. Lehen mailakoetan sailkatu dituzte urtean 3.350 orduz funtzionatzeko ahalmena luketen lekuak; bigarren mailakoetan, berriz, urtean 2.650 orduz

baino gehiagoz lan egin ahal luke eolikoak.

LPSak ezarritako eremuak udalerrien hirigintza araudietan egokitu beharko lirateke, lur eremu horiek erreserbatzeko. Baina LPSan zehaztutako eremu horietatik kanpo ere egon daitezke sustatzaile pribatuek egokitzat jotako instalazioak, eta horiek ohiko ingurumen eta lurralde plangin-

**Eusko Jaurlaritzak
uda honetarako nahi du
LPSa amaitu, baina
prozesuak mugarri
dezente ditu aurretik**

tzari dagozkion tramitazioak gainditu beharko dituzte. Alabaina, hainbat enpresa Jaurlaritzaren harremanetan dira, eurek sustatutako proiektuak LPSan jasotzea nahi dutelako.

Lau parke eoliko daude mar txan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako mendietan. Arabako Ingurumen teknikariek LPSari egotzi diote ez duela aintzat hartu horiek zahar berritzeko aukera, nahiz eta ontzat jo duen alternatibaren xedea den egungo instalazio berriztagarrien osagai zaharrek ordezkatzea, eraginkortasuna irabazteko. LPSan, baina, espresuki aitortu dute baztertu egin dituztela egungo parke eolikoak kokapen optimoen zerrendan. «Ingurumen Azterketa Estrategiakoak argitu egin beharko luke parkeen ahalmena handitzeak, ingurumen ikuspegitik, onura handiagoa lekarkeela instalazio berriak sortzeak baino».

Energia berriztagarrien LPS honen aurrekari gisa har daiteke 2002an onaturiko EAEko Energia Eolikoaren LPSa. Orduko har-

tan, 29 gune hautatu zituzten, eta haietako 11tan zentral eolikoak jar zitezkeela ebatzi zuten. Haietako batzuei lehentasunezko izaera aitortu zieten, eta batzuetan proiektuak aurrera eraman zituzten. Kontraktatutako eragin zuten proiektuek, eta gauzatuak urrun geratu zen, azkenean, EAEko Energia Estrategiak jarritako erronkatik, xedea baitzen 625 megawatteko potentzia eolikoa ezartzea.

Azkenean, mendietako lau zentralekin – Elgea-Urkilla, Oiz eta Badaia – eta Bilboko portukoarekin, 175 megawatteko potentzia ezarri zuten. «Indarrean den LPS eolikoarekin ezin dira lortu EAEko Energia Estrategiaren xedek», ondorioztatu du Jaurlaritzak.

Gipuzkoan eta Bizkaian

Arabian eragin handia izango du planak, baina ez da txikiagoa izango Gipuzkoan eta Bizkaian. Gipuzkoan, esaterako, agerikoa da Nafarroako mugan LPSak aurrekusi duen proiektu saldoa. 2000ko hamarkadako plangintzetan begiz jo zuten Urepel-Mandogei berreskuratu egin dute, eta zazpi kilometro luzeko proiektu bat aurrekusi dute han.

Herrialdeko mendizaleek begiko dituzten hainbat txoko ere ageri dira zerrendan: Loatzo (Villabona), Ipulifio (Berastegi), Erroizpe (Gaztelu), Andutz (Itziar-Deba), Izazpi (Zumarraga)... Gipuzkoari dagokionez, herrialde osoan daude banatuta eolikoak jartzeko kokalekuak. Bizkaian, berriz, nabarmena da zenbat egitasmo dauden Enkarterri alderako. Herrialde horretako itsasertzeko hainbat mendigune ere izendatu dituzte zentral eolikoak egiteko egoki.

Arabako Errioxan, mahastien eta eguzki plaken arteko talka

Jaurlaritzak Arabako lautada eta Errioxa hartu ditu aintzat fotovoltaikoak jartzeko • Eremu baliotsuak dira nekazaritzan eta basozaintzan

Inaki Petxarroman

Fotovoltaikoa da Jaurlaritzak hurrengo urteotan gehien garatu nahi dituen energia berriztagarrietako bat, eta, horretarako, bereziki bi eremu hartu ditu aintzat LPSan: Arabako lautada eta Arabako Errioxa. Bietan nekazaritzako eta basozaintzako LPSan balio handiko lur izendatutako eremu asko aukeratu dituela egotzi diote Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Saileko teknikariek Jaurlaritzari. «Planteamendu hori ez dator bat eremu funtzionalerik buruz egindako lurralde plangintzarekin, bereziki Arabako Errioxan, Mahastien eta Ardoaren Kultur Paisaiaren irizpideei dagokionez, garapen masibo batek eskualde osoan ekar lezakeen eraldatze nabarmena kontuan hartuta».

Alde horretatik, Ingurumen teknikariek beren txostenean nabarmendu dute lehentasuna eman dietela laboreetarako kalitate handiko lurrei, aurrez antropizatutako eta eraldatutako lurzoruei eman beharrean. Ildo horretan, uste dute ez dutela kon-

tuan hartu EAEko Lurraldea Antolatze Gidalerroen 18. artikulua, eraldatutako lur zoru eta azpiegiturak berrerrabiltzea lehenean duena. Alde horretatik, Europako Batasunaren Itun Berdearen eta bioaniztasunaren estrategiarekin bat ez etortzea ere egotzi diote plangintzari. Ingurumen, kultur eta paisaia balio handia duen landa mosaiko baten gailera lekarke Arabako lautadan eta Arabako Errioxan planteatzen den eguzki energiaren garapen horrek, Arabako ingurumen teknikarientz ustez.

Zentral fotovoltaikoen ondorioak aztertu beharko dituztela kontuan daude: lurren higadura, berrohartu efektua, ur kontsumoa, faunaren eta floraren gaineko eragina, suteak pizteko arriskua eta plakek eragingo luketen itsualdia, bai animalietan bai inguruotako pertsonengan. Halaber, nekazari lurren okupazioak zerbitzu ekosistemikoetan izango duen inpaktua ere neurtu behar dela uste dute, bai janari hornidurari dagokionez, bai karbono biltzei dagokionez.